

FUNTSEZKO ELKARTEAK

BETITXITA produktua hobetzeko edo mundu mailan zabaltzeko, ateein erlazionatuta dauden enprekin kolaboratuko du. Hasiera batean, Euskal Herriko konpainia txikiekin erlazionatzea garrantzitsua da eta kasu honetan, “Puertas Ireki” konpainiarekin elkartuko da. Enpresa hau, Eibarren kokatzen da eta eraiki berri diren industria- eta bizitegi-instalazioetarako metalezko ate eta ate automatikoen muntaketa eta mantentze-lanak egiteko enpresa bat da.



Konpainia honekin elkartuz, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa sortuko da, non, atea bakarrik ixteko menismoa “Puertas Ireki”-rekin batera salduko diren, hau da, “kit” bat izango balitz bezala.

Beraz, produktua bakarrik edo ate batekin batera salduko dira konpainia bi aldeetatik zabalduz. Gainera, negozio-eredua optimizatzeaz gain, produktua hobetzearen arriskuak ere murriztuko dira, izan ere, beste konpainia bat egongo da produktuarekin laguntzen eta aholkuak ematen hau hobetzeko. Beste onura bat, baliabide ezberdinak eskuratzeko erraztasuna da: materialak, nazionalki zabaltzeko aukera, diru-laguntzak...